

1.BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak, desgaitasun fisikoren bat duten pertsonen aisialdiko jardueretan gainerakoek bezala parte hartu ahal izatea du helburu. Pairatzen duten gizarte-bazterketarekin amaitzeko eta ahal den neurrian, haien gaitasunak garatzeko.

Bezeroen arreta deitzeko, gure produktua desberdintzea nahi dugu. Horretarako, estrategia batzuk erabili ditugu. Gure produktuak bideratuta daude ezgaitasun fisiko dituzten pertsonetara. Bilatzen duguna ez da bakarrik, gure onerarako, baizik eta guztien ongirako. Batez ere, itsuak



diren gazteek, sozietatean ahal den neurrian barneratuta sentitzeko eta gizartaratzeko. Horretaz gain, gure produktuekin ere ingurune hurbila babestea bilatzen dugu, ez bakarrik planetaren onerako, baita norbanakoen onerako ere. Era batean, belaunaldi gazteenen artean ingurumenarekiko errespetua sustatzeko balio du.

Beste enpresa batzuetatik bereizten gaituzten ezaugarrien artean, gure prezioen irisgarritasuna nabarmentzen da. Gure enpresan, ezintasunak dituzten haurren integrazioaren eta ongizatearen alde lan egiteaz gain, familia guztiek, egoera ekonomikoa edozein dela ere, gure produktuak eskuratu ahal izango dituztela bermatzen dugu. Badakigu behar bereziak dituzten pertsonen egokitutako artikuluek prezio nahiko altuak izaten dituztela, eta horrek haien erosketa mugatzen du. Horregatik, kalitatezko konponbide funtzional eta eskuragarriak eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu.



Beste enpresa batzuetatik bereizten gaituen beste ezaugarri bat da gure produktuak online saltzen direla, gure web orriaren bidez. Uste dugu gaur egun herritar gehienek Internet bidez erosten dutela denda fisikoetara joan beharrean. Bestalde, gure produktuen diseinuari dagokionez, jolas tradizional egokituak erabiliko ditugu, adibidez, Braille-rekin, testura desberdinekin eta koloreekin, ezgaitasunik ez duten haurrek ere jolas dezaten. Eta, horrela, ongizate orokorra sortzea haien artean.